# Deialdi bateratuetan parte hartzeko argibideak

## Azterketa egin aurretik

- **IVAPeko ordezkaria izendatu hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probarako**

Hautaketa-prozesua deitu duen entitateak hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba prestatu eta zuzenduko duen ordezkaria eta bere ordezkoa izendatzeko eskatuko dio IVAPi, Hautanet aplikazioaren bidez edo hautaketa@ivap.eus helbidera idatziz.

- **Deialdi bateratuen kudeatzailearekin harremanetan jarri**

Izendapena jaso ondoren, entitatea deialdi bateratuen kudeatzailearekin jarriko da harremanetan, eta biek euskara-probarako aurreikuspen bat egingo dute, argitaratuta dagoen deialdi bateratuen egutegiaren arabera.

- **Izangaiei baimena eskatu IVAPek Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuko (ETZEB) informazioa emateko entitateei**

Hautaketa prozesua deitu duen entitateak berariazko baimena eskatuko die izangaiei eskabidean, IVAPek Erregistroko Bateratuko informazioa begiratu eta entitateari eman ahal izateko.

- **Behin betiko zerrenda emateko epea**

Deialdi bateratuen antolakuntzarako beharrezkoa da informazioa aldez aurretik edukitzea eta ahalik eta informaziorik zehatzena izatea, erabiliko diren lokalak kontratatzeko, azterketa-egunak zehazteko eta giza baliabideak optimizatzeko.

Horren haritik, deialdi bateratuaren lehen eguna baino **hamar egun lehenago**, beranduen jota, entitateak azterketa horretara joango diren izangaien behin betiko zerrenda bidaliko dio posta elektronikoz deialdi bateratuen kudeatzaileari (ma-iturria@ivap.eus.

Hautaketa-prozesuko aurreko proba eginda eta gaindituta dutenek solik osatuko dute zerrenda. Beraz, aurreko proba horren aurkako erreklamaziorik izanez gero, zerrenda bidali aurretik ebatzita egon beharko dute. Salbuespen moduan, izangairen bati euskara azterketa kautelaz egin beharko balitzaio, ez litzaioke idatzizko azterketa zuzenduko harik eta entitateak IVAPi jakinarazi arte aurreko proba gainditu duela eta hautaketa-prozesuan jarraitzen duela.

- **Izangaien datuak bidaltzeko fitxategia**

IVAPek excel fitxategi bat du bere web-orrian izangaien datuak biltzeko. Bertan eskatzen den informazioa bete eta IVAPera bidali behar da esandako epean.

### Datuen zuzentasuna

Hizkuntza-eskakizunaren azterketa egiteko onartuta dagoen izangai kopurua eta zerrendan jasotzen diren datu pertsonalak zuzenak izan behar dira eta izangaiaren NAN agirian agertzen diren datu ofizialekin bat etorri behar dute, azterketa gainditzen dutenei egiaztapen-ziurtagiria egingo baitzaie.

### Azterketa egiteko egokitzapena

Izangairen batek proba egiteko egokitzapenen bat behar izanez gero, nahitaezkoa da entitateak IVAPi egokitzapen horren berri ematea.

Hautaketa-prozesua deitu duen entitateak emandako datuak eta indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, IVAPeko Ebaluazio Arloaren eskumena da egokitzapen horien nondik norakoak zehaztea.

### Hizkuntza eskakizuna meritua denean

Hizkuntza-eskakizuna hautaketa-prozesuan meritua denean, alde handia egoten da azterketa egitera onartutakoen eta aurkeztutako izangaien artean. Horregatik, giza- eta diru-baliabideak optimizatze aldera, beharrezkoa da izangaiei galdetzea, eskabide-orrian edo aurreko proba batean, euskarazko azterketa egiteko asmoa duten eta zer hizkuntza eskakizun egingo duten. Betiere, hautaketa-prozesuaren oinarriek diotena kontuan izanik, meritu moduan baloratzen diren hizkuntza-eskakizunen azterketak baino ezingo dituzte egin.

### Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa denean

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa denean, lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko aukera baino ez dute izango izangaiek.

**Harremanetarako**:
Aintzane Iturria
Telefonoa: 945 017629
ma-iturria@ivap.eus



#EUSKADIBERRIA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO